DONOSTIAKO UDALA
DONOSTIA KULTURA
2012
DONOSTIAKO ESTROPADAK-KONTXAKO BANDERA (gizonak)
OINARRIAK

Kontxako Banderaren Antolamendua.

1) DONOSTIA KULTURAk, hiriko Udalaren ordezkari gisa, "Donostiako Estropadak – Kontxako Bandera (gizonak)" izeneko estropada antolatzeko eskuduntza du.

2) "Kontxako Bandera" lehiaketak honakoak hartzen ditu:

*sailkapen-proba: erlojuz kontrako modalitatean egingo dena.

*finaleko estropadak: lau ontziko bi txandatan egingo direnak.

2.- Donostiako tripulazioa.

Hiriaren ordezkari izango den Donostiako tripulazioak finaleko estropadetan parte hartuko du, araudi honen arabera dagokion txandan.

3.- Sailkapen-proba.

Kontxako Banderan parte hartuko duten gainerako zazpi tripulazioak sailkatzeko proba 2012eko abuztuaren 30ean, osteguna, 18:00tan egingo da.

4.- Finaleko Estropadak.

Finaleko estropadak 2012eko irailaren 2an eta 9an izango dira, eguerdian.

5.- Antolakuntzaren laguntzaileak.

DONOSTIA KULTURA, Kontxako Banderaren antolatzaile den aldetik, elkarlanerako hitzarmenak egin ditzake arraun-elkarteekin, kirol-federazioekin, epaileen elkargoekin eta beste edozein erakunde publiko edo pribaturekin, eta, batez ere, Arraunketako Euskal Federazioarekin.

AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN
DONOSTIA KULTURA
2012
REGATAS DE SAN SEBASTIAN-BANDERA DE LA CONCHA (modalidad masculina)
BASES

1.- Organización de la Bandera de la Concha.

1) La organización de las regatas de traineras denominada "Regatas de San Sebastián – Bandera de la Concha (modalidad masculina)" es competencia de DONOSTIA KULTURA en representación del Ayuntamiento de la ciudad.

2) El evento "Bandera de la Concha" comprende:

*la prueba clasificatoria: que se realizará en la modalidad contra reloj.

*las regatas finales: que se realizarán en dos tandas de cuatro tripulaciones cada una de ellas.

2.- Tripulación Donostiarra.

La tripulación donostiarra que represente a la ciudad participará en las regatas finales en la tanda que le corresponda según la presente normativa

3.- Prueba clasificatoria.

La prueba para la clasificación de las restantes siete tripulaciones que podrán tomar parte en la Bandera de la Concha se celebrará el jueves día 30 de Agosto de 2012 a las 18.00 h.

4.- Regatas Finales.

Las regatas finales se celebrarán los días 2 y 9 de septiembre de 2012 a las 12:00h. Del mediodía.

5.- Colaboradores de la organización.

DONOSTIA KULTURA en su calidad de organizador de la Bandera de la Concha podrá establecer convenios con clubes de remo, federaciones deportivas, colegios de árbitros y cualesquiera otras entidades públicas o privadas y en especial con la Federación Vasca de Remo.

IFK-CIF Q2000541I
10131n I 2009-11

Donostia Kultura
Festak • Fiestas
Konstituzio Plaza, 1 • 20003 Donostia-San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177 • donostiakofestak@donostia.org

6.- Inskripzioak.

1) Sailkapen-proban parte hartzeko inskripzioak 2012eko abuztuak 1 12:00ak baino lehen egin beharko dira. Interesa duten tripulazioek idatziz aurkeztu beharko dituzte inskripzioak. Inskripzio-orriak, Donostiako DONOSTIA KULTURA EEPren bulegoetan (Konstituzio Plaza, 1 – 20003 Donostia**),** fax bidez 943.48.11.77 zenbakira bidali, edo posta elektronikoz, donostiakofestak@donostia.org helbidera igorrita aurkeztu ahal izango dituzte.

2) Lehiaketan parte hartu nahi duten tripulazioetako arraunlariek, dagokion federazioak emandako autonomia- eta/edo estatu-mailako lizentzia izan behar dute.

3) Interesa duten traineru-tripulazio guztiek beren inskripzioa eskatu ahal izango dute.

4) Sailkapen-proban 24 tripulazio hartuko dute parte, gehienez ere.

Inskribatutakoak 24 baino gehiago izanez gero, antolakuntzak Sailkapen-proban parte hartuko duten tripulazioak aukeratuko ditu, honako irizpideak ordenean jarraituz:

a) TKE ligan bere sailkapena ordena.

b) Traineruen Euskadiko Txapelketan lehen lau sailkatuak.

c) Gipuzkoako Txapelketan parte hartu duten Gipuzkoako tripulazio guztiak.

d) ARC-1 ligan bere sailkapen ordena.

e) Liga Galega de Traiñeiras eta bere sailkapena, hiru tripulazio gehienez.

f) Aktiboan dagoen Ipar Euskal Herriko traineru-tripulazioa, holakorik balego.

g) Arestian aipatu diren ligetan parte hartzen duen Asturiasko traineru-tripulazioa.

h) ARC-2 ligan bere sailkapen ordena.

6.- Inscripciones.

1) Las solicitudes de inscripción para tomar parte en la Regata Clasificatoria deberán ser presentadas por los clubes interesados antes de las 12:00h del día 1 de agosto de 2012 por escrito y presentando las hojas de inscripción en las oficinas de la E.P.E. DONOSTIA KULTURA (Pz. Constitución, 1 – 20003 Donostia-San Sebastián), vía fax al número 943.48.11.77 o por correo electrónico a la dirección donostiakofestak@donostia.org.

2) Los miembros de las tripulaciones que deseen participar en la competición deberán estar en posesión de licencia autonómica y/o estatal emitida por la federación correspondiente.

3) Podrán solicitar su inscripción todas las tripulaciones de traineras que lo deseen.

4) El número máximo de tripulaciones que podrán tomar parte en la regata clasificatoria se limita a 24.

Si el número de solicitantes fuese superior a 24, la organización seleccionará las tripulaciones que podrán participar en la Regata Clasificatoria aplicando el orden siguiente de criterios:

a) Orden de clasificación en la Liga ACT.

b) Cuatro primeros clasificados del Campeonato de Traineras de Euskadi.

c) Todas las tripulaciones guipuzcoanas que participen en el campeonato de Gipuzkoa.

d) Orden de clasificación de la Liga ARC-1.

e) Liga Galega de Traiñeiras y su clasificación, hasta un máximo de tres tripulaciones.

f) Tripulación de trainera en activo en el País Vasco Francés si la hubiere.

g) Tripulación de trainera asturiana en activo en cualquiera de las ligas anteriormente mencionadas.

h) Orden de clasificación de la Liga ARC-2.

IFK-CIF Q2000541I
10131n I 2009-11

Antolatzaileak beretzat gordetzen du traineru modalitatean indarrean dauden tripulazioei sailkapen estropadan parte hartzeko gonbita egiteko ahalmena, nahiz eta gonbidatuak lehen aipaturiko aukeratze baldintzak bete ez, baldin eta:

a) Aipatu ez diren Liga edo Txapelketetan parte hartzen badute, edo

b) Dagozkien herrialde-txapelketako lehen postua lortu badute, edo

c) Historian ospe eta sari handiak irabazitako elkarteetakoak badira, merezimendu berezitzat hartuko dela Kontxako Bandera (gizonak) irabazitakoen zerrendan egotea.

5) Bete beharreko baldintza izango da, kasu guztietan, izen ematea eskatzeko, dagokion lurraldeko edo probintziako ligan parte hartzea.

6) Arraun-elkarte bakoitzeko tripulazio batek soilik eman ahal izango du izena. Inskribatutako tripulazioak 22 arraunlari izango ditu gehienez. Inskribatutako 22 arraunlariek klub horri dagokion eta 2012ko abuztuaren 1a aurretik luzaturiko federazioak emandako lizentzia eduki beharko dute. Sailkapen estropadaren egunean osasun kontrolak egin ahal izateko, zerrenda honetan agertzen diren arraunlari guztiek lehiaketa barrutian egon beharko dute Antolakuntzaren esanetara.

7) Tripulazioak estropadetan eramango duen kamisetaren kolorea zehaztu beharko da inskripzio-eskaeran.

8) Izen-ematea egindakotzat joko da, antolakuntzak interesatuari ofizialki jakinarazten dionean.

9) Kontxako Bandera (gizonak)en izenemateak oinarri hauek eta Araudi honetako 17. Oinarrian ezarritako arautegiak oso-osorik onartzea dakar.

La organización se reserva para sí la facultad de cursar invitación para participar en la Regata Clasificatoria a tripulaciones en activo en la modalidad de trainera que no cumpliendo los requisitos de selección anteriormente expuestos:

a) Participen en Ligas o Campeonatos diferentes a los indicados, o

b) Hayan obtenido el primer puesto en sus respectivos campeonatos autonómicos, o

c) Pertenezcan a Clubes de reconocido prestigio histórico y palmarés siendo mérito de especial consideración figurar inscrito en la relación de ganadores de la Bandera de la Concha (modalidad masculina).

5) Será requisito imprescindible en todos los casos para solicitar la inscripción haber participado en el correspondiente Campeonato territorial o provincial.

6) Únicamente se admitirá la inscripción de una tripulación por cada club de remo. La tripulación inscrita contará con un máximo de 22 componentes. Los 22 componentes inscritos deberán hallarse en posesión de licencia federativa correspondiente al club por el que se inscriban antes del 1 de Agosto de 2012. Todos los remeros relacionados en esta lista deberán encontrarse en el recinto de competición a disposición de la Organización para la posible realización de control de salud el día de la regata clasificatoria.

7) En la solicitud de inscripción se indicará el color de las camisetas que la tripulación vestirá en las regatas.

8) La inscripción se considerará realizada cuando la Organización comunique al solicitante la aceptación de la misma.

9) La inscripción en las Regatas de San Sebastián - Bandera de la Concha (modalidad masculina) supone la aceptación íntegra de las presentes bases y de los reglamentos establecidos en la Base 17 de la presente Normativa.

IFK-CIF Q2000541I
10131n I 2009-11

7.- Estropadetako organoak.

Honakoak izango dira estropadetako organoak:

a.- Estropadaren Antolakuntza Batzordea.

Batzordeko kide izango dira DONOSTIA KULTURAko Lehendakaria eta Lehendakariordea, Donostia Kultura Festak-eko Zuzendaritza Teknikoa eta entitateak izendatutako gai honetan aditua den beste pertsona bat. DONOSTIA KULTURAk probaren antolamenduarekin zuzenean lotzen diren entitateei Batzordean parte hartzeko eska diezaieke, baldin eta entitate horiekin askotariko hitzarmenak sinatuta badituzte.

b.- Estropadako epaimahaia.

Estropadako epaimahaikideak DONOSTIA KULTURAKO lehendakariordeak izendatuko ditu, Festen Unitatearen Zuzendaritza Teknikoak (Arraunketako Euskal Federazioak hala eskatuta Gipuzkoako Federazioak egindako proposamena aztertu eta gero) aurkeztutako proposamenaren arabera. Epaimahai horrek estropadetan arau teknikoak eta kirol-arauak betetzen direla zaindu beharko du. Aitzitik, ez da bere eskumenekoa izango kaleen eta txanden zozketa egitea, ezta antzeko beste antolamendu-zeregin batzuk ere.

Epaimahaiaren eta bertako kide bakoitzaren erabakiak berehala bete beharko dira.

Estropada amaituta, Epaimahaiak akta idatziko du. Bertan, honako puntu hauek adieraziko dituzte:

a) Izandako kirol-emaitzak.

b) Egindako erreklamazioak, holakorik baleude.

c) Gertakariak edo oharrak, halakorik balego. Bereziki, estropadaren ondorioz gertatutako eta estropadaren

7.- Órganos de las Regatas.

Serán órganos de las regatas:

a.- El Comité Organizador de la Regata.

Serán miembros del Comité el Presidente y la Vicepresidenta de DONOSTIA KULTURA, la Dirección Técnica de Donostia Kultura Festak y otra persona, de reconocida solvencia en la materia, designada por la entidad. DONOSTIA KULTURA podrá solicitar la participación en el Comité de las entidades con las que se establezcan convenios de diversa índole que estén directamente relacionadas con el desarrollo de la prueba en su faceta organizativa.

b.- El Jurado de Regata.

Los miembros del Jurado de Regata serán nombrados por la Vicepresidenta de DONOSTIA KULTURA, a propuesta de la Dirección Técnica de la unidad de fiestas, previa propuesta presentada por la Federación Guipuzcoana de Remo por encomienda de la Federación Vasca de Remo. La función de este Jurado consistirá, básicamente, en cuidar que se observen las normas técnicas y deportivas en las regatas, sin que sean de su competencia los actos organizativos como pueden ser el sorteo de calles, tandas, etcétera.

Las decisiones del Jurado y de cada uno de sus miembros en el desempeño de sus funciones serán de inmediata ejecución.

Finalizada la regata, el Jurado redactará un acta comprensiva de:

a) Los resultados deportivos habidos.

b) Las reclamaciones formuladas, si las hubiera.

c) Las incidencias u observaciones, si las hubiere. En especial, se hará mención a cuantas cuestiones hubieran ocurrido con

IFK-CIF Q2000541I
10131n I 2009-11

antolakuntza-batzordeak ezagutu behar dituen gaiak aipatuko dira.

Estropada bakoitzeko akta, Epaimahaiak izenpetu ondoren, estropadaren antolakuntza-batzordeari emango diote.

Estropadan parte hartu duten klubetako ordezkariek akta eskatu ahal izango dute bertan jasotakoa ezagutzeko.

8.- <u>Antolakuntza Batzordearen bilerak, estropaden aurretik</u>.

1) Sailkapen-probaren aurretik Antolakuntza Batzordeak egin beharreko bilkura irailaren 1ean, 12:00etan, egingo da Donostiako Udaletxean eta parte hartuko duten tripulazioetako ordezkariak izango dira bertan.

2) Irailaren 4eko eta 11ko proben aurretik Antolakuntza Batzordeak egin beharreko bilkura egun horietan bertan 10:00etan egingo da Donostiako Udaletxean, eta parte hartuko duten tripulazioetako ordezkariak izango dira bertan.

9.- <u>Tripulazioak</u>.

1) Tripulazio bakoitzak hamahiru arraunlari eta patroia izango ditu. Estropadaren jardunaldi batetik bestera arraunlariak aldatu nahi badira, aulki finkoko Estropadetarako Arautegian xedatzen denari jarraituko zaio, 17. Oinarrian ezarritakoaren arabera.

2) Estropadaren ikusgarritasuna eta zuzentasuna zaintzeko, tripulazio guztiek beren tripulazioaren kamiseta jantzi beharko dute portuko arrapalatik irteten direnetik bertara iristen diren arte, hau da, izena emateko eskaeran adierazitako kolore bereko kamiseta eraman beharko dute. Salbuespen gisa, txandala edo antzeko ezaugarrietako kirol-arropa erabili ahal izango da, baldin eta baldintza klimatikoek edo kirol-baldintzek hala eskatzen badute. Haatik, arropa horietan babeslearen izena edo logotipoa, elkartearen izena, ordezkatzen duten herriaren izena eta traineruaren izena besterik ez da azalduko.

ocasión de la regata y que deban ser conocidas por el comité organizador de la regata.

El acta de cada regata, una vez suscrita por el Jurado, será entregada al comité organizador de la regata.

El acta podrá ser solicitada por los delegados acreditados de los clubes participantes en la regata para el conocimiento de su contenido.

8.- <u>Reuniones del Comité Organizador antes de las regatas.</u>

1) La reunión del Comité Organizador antes de la prueba clasificatoria se celebrará con los delegados de las tripulaciones participantes el día 30 de agosto a las 12:00 h. en el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián.

2) La reunión del Comité Organizador de las Regatas con los delegados de las tripulaciones participantes en las pruebas de los días 2 y 9 de septiembre se celebrará cada uno de estos días a las 10:00 h. de la mañana en el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián.

9.- <u>Las tripulaciones</u>.

1) Cada tripulación se compondrá de trece remeros y el patrón. La sustitución de remeros de una jornada a otra se sujetará a lo dispuesto en el Reglamento de regatas de banco fijo que resulte de aplicación conforme a lo establecido en la Base 17.

2) Para cuidar de la vistosidad y buen orden de la regata, todas las tripulaciones, desde el momento en que salgan desde la rampa del puerto hasta su arribada, deberán vestir la camiseta de su tripulación con el color indicado en la solicitud de inscripción. Excepcionalmente, se permitirá el uso de chándal o prenda deportiva de similares características si así lo aconsejaran las condiciones climáticas o deportivas, pudiendo figurar en dichas prendas únicamente el nombre o logotipo del patrocinador, el nombre del club y el del pueblo al que representan, además del nombre de la trainera.

IFK-CIF Q2000541I
10131n I 2009-11

10.- Traineruak.

1) Estropadetan erabiltzen diren traineruek 17. Oinarrian ezartzen denaren arabera aplikatzekoak diren arauak bete beharko dituzte pisuari, neurriei eta ezaugarriei dagokienez. Federakuntzako arau horiek ere aplikatzekoak izango dira traineruaren gainerako elementuei dagokienez (ordezko arraunei, palkei eta abar).

2) Elkarte parte-hartzaileei behar bezala jakinaraziko zaien egunean eta orduan pisatuko dira ontziak. Proba egiteko erabiliko den ontziratze-eremutik hurbil jarritako baskulan egingo da hori.

3) Traineruek, bai ontzian bai bere osagai ezberdinetan, beren izena eta ontziaren babeslearen/babesleen izena izan dezakete idatzita, baita elkartearen eta ordezkatzen duten herriaren izenak ere.

   Ezingo dute, inolaz ere, Kontxako Banderaz bestelako gertakarien babesleen aipamenik izan –zuzenki edo zeharka-. Kirolarien eta laguntzaileen (ordezkari, entrenatzaileak…) kirol-ekipamenduak ez du horrelako aipamenik izango ere.

4) Kontxako Banderaren antolakuntzak, probaren garapena hobetzeko eta optimizatzeko, ontziek gailu teknikoren bat eramatea erabakitzen badu, parte hartzen duten klubek onartu egin beharko dute gailu tekniko horiek beren ontzietan jartzea. Baita ere banderaren emanaldia erraztuko duten audio edo/eta irudi elementuak beraien ontzietan jartzea onartu beharko dute

10.- Las traineras.

1) Las traineras que se empleen en las regatas se someterán en lo relativo a peso, medidas y características a las normas que resulten de aplicación conforme a lo establecido en la Base 17. Estas normas federativas serán también aplicables a los demás elementos de la trainera tales como remos de repuesto, bota-aguas, etcétera.

2) En la fecha y hora que oportunamente se comunicará a los clubes participantes, se procederá al pesaje de las embarcaciones en la báscula que se instalará al efecto en las inmediaciones de la zona de embarque para la prueba.

3) Las traineras podrán llevar inscrito, tanto en la propia embarcación como en los diferentes elementos de la misma, su nombre, el de su/s patrocinador/es, el nombre del club y el del pueblo al que representan.

   No podrán recoger en ningún caso el nombre o alusión alguna –directa o indirecta- a patrocinadores de otros eventos diferentes a la Bandera de la Concha El equipamiento deportivo con el que participen sus deportistas y personal de apoyo (delegados, entrenadores,…) tampoco podrá reflejar ninguno de los extremos señalados.

4) Los clubes participantes deberán aceptar la inclusión en sus embarcaciones de los dispositivos técnicos que decida la organización de la Bandera de la Concha con el objeto de mejorar y optimizar el desarrollo de la prueba. Aceptarán asimismo la inclusión en sus embarcaciones de elementos de audio y/o imagen que faciliten la retransmisión de la prueba.

IFK-CIF Q2000541I
10131n I 2009-11

Donostia Kultura
Festak • Fiestas
Konstituzio Plaza, 1 • 20003 Donostia-San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177 • donostiakofestak@donostia.org

Kontxako Era berean banderaren emanaldia erraztuko duten audio edo/eta irudi elementuak beraien ontzietan jartzea onartu beharko dute. Aipatu soinu edo/eta irudi gailurik ez dituzten gainerako ontziei gailu horiek duten pisu bereko lasta ezarriko zaie.

Mota honetako gailuak zein ontzik eraman behar duten, zozketa bidez erabakiko da estropadaren eguneko ordezkarien bileran.

11.-Sailkapen-estropada.

1) Sailkapen estropadatzat hartuko da Kontxako Banderan parte hartu nahi duten traineruen zenbatekoa zazpitik gorakoa izanez gero, estropada nagusia bera izan aurretik hartan lehiatuko diren zazpi tripulazioak aukeratzeko egiten dena.

2) Antolakuntza Batzordearen eta tripulazio bakoitzeko elkarteen ordezkarien arteko bilera egingo da araudi honetako 8.1. artikuluan aditzera eman den egunean eta orduan. Bilera horretan sailkapen-estropadari buruzko azken argibideak emango dira eta elkarte bakoitzak zein arraunlarirekin hartuko duen parte jakinarazi beharko dio antolakuntzari, arraunlarien behin betiko zerrenda eman beharko dio.

3) Aurretiazko sailkapen-estropadaren amaierako sailkapeneko lehen zazpi tripulazioak hautatuko dira.

4) Inskribatutako traineruen artean bi multzo egingo ditu Antolakuntza Batzordeak; horretarako, traineruek denboraldi horretan erakutsi duten kirol-maila hartuko da kontuan.

5) Ondoren, multzoen irteera-ordena zozketatuko da, baita multzo bakoitzaren barruan tripulazioen irteera-ordena ere.

6) Proba lehenik kirol-maila txikiagoa duen multzoak egin behar badu, bi minutuko tartea utziko da bigarren multzoko traineruak irten baino lehen.

Las embarcaciones restantes serán lastradas en un peso idéntico al introducido en aquella/s que deba/n integrar los dispositivos de audio y/o imagen que la organización decida.

La decisión de la/s embarcación/es que deberá/n admitir la inclusión de este tipo de dispositivos se realizará mediante sorteo en la reunión de delegados del día de la regata.

11.-Regata clasificatoria.

1) Tiene carácter de regata clasificatoria aquella que se celebra previamente en el caso de que el número total de tripulaciones interesadas en participar en la Bandera de la Concha exceda el número de siete, para realizar la selección de las siete traineras que podrán participar en la misma.

2) En lugar y hora que se indican en el art. 8.1 de la presente normativa, se celebrará una reunión entre el Comité Organizador y los delegados de los clubes de cada tripulación. En la misma se darán las últimas instrucciones relativas a la regata y se deberá entregar a la organización la lista definitiva de remeros con los que participará cada club.

3) Resultarán seleccionadas las tripulaciones que se clasifiquen en los siete primeros puestos de la regata previa clasificatoria.

4) El Comité Organizador formará dos grupos entre las traineras inscritas en función del nivel deportivo demostrado por las mismas a lo largo de la temporada en curso.

5) A continuación, se celebrará el sorteo del orden de salida de los grupos y de las tripulaciones dentro de cada grupo.

6) Si al grupo de menor nivel deportivo le correspondiese salir en primer lugar, se establecerá una diferencia de tiempo de dos minutos para la salida del segundo grupo.

IFK-CIF Q2000541I
10131n I 2009-11

7) Multzo bakoitzaren barruan traineruak minututik minutura irtengo dira, eta gehienez hamabost segundoko tartea emango da irteteko.

8) Irteera eman den unetik hasiko da denbora zenbatzen.

9) Erlojuaren aurkako estropadak guztira (joan eta etorri) 3 miliako distantzia izango du, ibilbide bereko bi luzetan banatuta. Ziaboga bakar batean egingo da. Ziaboga ababorretik hartuko da.

10) Ibilbidean zehar ababorretik utziko diren erreferentziazko tarteko balizak jarriko dira.

11) Sailkapen-estropadan irten eta ondorengo hogei segundoen barruan kirolari batek min hartzen badu edo traineruko elementuren bat puskatzen bada, taldeek hamar minutu izango dute min hartu duen kirolaria derrigor ordezkatu edo traineruan puskatutakoa konpondu eta irteerako epailearen esanetara jartzeko. Kirolaria ordezkatuta edo puskatutakoa konponduta, trainerua berari dagokion txandaren azkeneko lekuan irtengo da. Adierazitako epean arazoa konpondu ezin izan badute, trainerua estropadako azken lekuan irtengo da.

Bi kasuotan, eta inguruabarrak direnak direla ere, dagokion tripulazioari 3 segundoko zigorra ezarriko zaio. Esandako gertaeretako baten simulazioak estropadatik kanpo geratzea ekarriko du berekin.

12.-<u>Finaleko estropadak prestatzea</u>.

1) Aurretiazko sailkapen-estropada amaitu eta ordu erdira, sailkatutako tripulazioetako ordezkariekin bilera egingo da Donostiako Udalean, Kontxako Bandera (gizonak)en lehen proban tripulazioak zein txandatan irtengo diren zozketatzeko.

7) La salida de traineras dentro de cada grupo se producirá en intervalos de un minuto, concediéndose un margen máximo de quince segundos para la salida.

8) El cómputo del tiempo correrá desde el inicio.

9) La regata contra reloj será de una distancia total (ida y vuelta) de tres millas con una sola ciaboga, dividida en dos largos de idéntico recorrido. La virada de la ciaboga se realizará por babor.

10) A lo largo del recorrido se colocarán balizas intermedias de referencia que se dejarán por babor.

11) Producida la lesión de un deportista o la rotura de algún elemento de alguna trainera dentro de los veinte segundos siguientes a la salida en la regata previa clasificatoria, se concede un máximo de diez minutos para sustituir obligatoriamente al deportista lesionado o reparar la rotura y ponerse a disposición del juez de salida. Sustituido el deportista o reparada la rotura, tomará la salida en último lugar de su tanda correspondiente. Si en el plazo señalado no se hubiera podido solucionar la incidencia, tomará la salida en el último lugar de la regata.

En ambos casos y cualesquiera que sean las circunstancias concurrentes, se aplicará a la tripulación afectada una penalización de 3 segundos. La simulación de cualquiera de los supuestos indicados supondrá la exclusión de la regata..

12.-<u>Preparación de las regatas finales</u>.

1) Media hora después de la finalización de la regata previa clasificatoria se celebrará una reunión con los delegados de las tripulaciones clasificadas en el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián para el sorteo de las tandas que corresponderán a las tripulaciones en la primera prueba.

IFK-CIF Q2000541I
10131n I 2009-11

2) Bi txandetako kale-ordena estropada-egunean bertan ezarriko da, delegatuen bileran zehar egingo den zozketaz.

3) Lasterketa bakoitza hasi baino ordu bat lehenago, dagokion kontrol-epaileak egingo duen ontziratze-kontrola pasatu beharko dute tripulazioek Gurutze Gorriaren pantalanean, egindako izen-ematea eta ontzi bakoitzeko tripulazioa bat datozen egiaztatzeko. Horrek ez du esan nahi beroketan zehar dagokion kontrol-epaileek kontrol hori errepika ez dezaketenik.

4) Estropadari hasiera emateko ordu ofiziala baino bost minutu lehenago egon beharko dute prest estropadan parte hartuko duten ontziek. Arau hori betetzen ez dutenei irteera nulua emango zaie.

5) Bi probak egingo diren egunean bertan, eta araudi honetako 8.2. artikuluan jakinarazten den lekuan eta orduan, Estropadaren Antolakuntza Batzordeak bilera egingo du parte hartuko duten tripulazioetako ordezkariekin.

13.-<u>Estropadaren garapena</u>.

1) Kontxako Banderaren finalean bi estropada egingo dira. Estropada bakoitzak, guztira (joan eta etorri), hiru itsaso-miliako distantzia izango du, ibilbide bereko bi luzetan banatuta. Ziaboga ababorretik hartuko da.

- Lehen estropada: iraileko lehen igandean egingo da, eta eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten traineru sailkatuek hartuko dute parte. Txandak eta kaleak zozketatu egingo dira.

- Bigarren estropada: hurrengo igandean egingo da. Bigarren estropada horretako lehen txandan aurreneko estropadan denborarik txarrenak egin dituzten lau tripulazioek egingo dute arraun, eta bigarren txandan denborarik onenak egin dituzten beste lauek. Kaleak zozketatuko dira.

2) El orden de calles de las dos tandas se sorteará el mismo día de celebración de las regatas durante la reunión de delegados.

3) Con una antelación de una hora al comienzo de cada prueba, las tripulaciones deberán someterse al control de embarque que realizará el árbitro de control correspondiente en el pantalán de la Cruz Roja, al objeto de que verifique la coincidencia entre la inscripción realizada y la tripulación de cada una de las embarcaciones. Ello no es óbice para que durante el calentamiento los árbitros correspondientes puedan volver a realizar este control.

4) Las embarcaciones participantes deberán estar preparadas cinco minutos antes de la hora oficial de inicio de la regata. Se dará salida nula a los infractores de esta norma.

5) El mismo día de la celebración de las dos pruebas y en el lugar y la hora que se indican en el art. 8.2 de la presente normativa, se celebrará una reunión del Comité Organizador de Regatas con los delegados de las tripulaciones participantes en las mismas.

13.-<u>Desarrollo de la prueba</u>.

1) La Bandera de la Concha culminará con dos regatas finales de una distancia total (ida y vuelta) de tres millas náuticas cada una con una sola ciaboga, divididas en dos largos de idéntico recorrido. La virada de la ciaboga se realizará por babor.

- La Primera regata: Se celebrará el primer domingo de septiembre y tomarán parte en ella las traineras clasificadas que cumplan los requisitos exigidos, sorteándose las tandas y las calles.

- La Segunda regata: Se celebrará el siguiente domingo. En la primera tanda de esta segunda regata regatearán las cuatro tripulaciones que hayan obtenido peor tiempo en la primera regata y en la segunda tanda participarán las tripulaciones que hayan obtenido los mejores tiempos, sorteándose las calles.

IFK-CIF Q2000541I
10131n I 2009-11

2) Probaren behin betiko sailkapena egiteko, ontzietako bakoitzak bi estropadetako ibilbidea osatzeko erabili duen denbora batuko da, eta bi estropaden batura egin ondoren denbora gutxien egin duen tripulazioak irabaziko du.

3) Azken estropadetako bi igandeetako bi txandetan irten eta hogei segundoko tartean kirolari batek min hartzen badu edo traineru baten elementuren bat puskatzen bada, txanda geldituko da, eta traineruak kirolaria derrigor ordezkatu edo puskatutakoa konpondu ondoren emango zaio berriz irteera txanda horri. Hausturaren larritasuna egiaztatu ondoren, txanda matxuratutako traineru gabe hastea erabaki ahal izango du epaileak.

Bi kasuotan, eta inguruabarrak direnak direla ere, dagokion tripulazioari 3 segundoko zigorra ezarriko zaio. Esandako gertaeretako baten simulazioak estropadatik kanpo geratzea ekarriko du berekin.

4) Aurkako klimatologiagatik, edo ezohiko beste zirkunstantzia batengatik, estropadetakoren bat bertan behera utzi behar bada, Antolakuntza Batzordeari dagokio estropada hori zein egunetan eta ordutan egingo den erabakitzea. Orokorrean, eta Batzordeak kasuak kasu erabaki dezakeenaren kalterik gabe, berrogeita zortzi orduko epea ezartzen da lehen estropada egiteko, eta bigarrena hurrengo zazpi egunen barruan egin beharko da. Estropada eten egiten bada ere, probaren emaitzak bi estropadak egin ondoren erabakiko dira.

14.-<u>Sailkapen-estropadan parte hartzen duten tripulazioentzako bidaia-sariak</u>

Sailkapen-estropadan parte hartzen duten tripulazioek bidaia-saria jasoko dute. Bidaia-sari hori kalkulatzeko honako baremoa izango da kontuan:

- Tripulazioaren jatorria Donostiatik gehienez 150 kilometrotara badago: 500 €

2) La clasificación definitiva de la prueba se obtendrá computando los tiempos que cada una de las embarcaciones haya empleado en el recorrido de las dos regatas anteriores, obteniendo el primer lugar la tripulación que sume menor tiempo.

3) La lesión de un deportista o la rotura de algún elemento de alguna trainera dentro de los veinte segundos siguientes a la salida en las dos tandas de los dos domingos de las regatas finales supondrá la detención de la tanda, reanudándose la misma una vez la trainera haya sustituido obligatoriamente al deportista o haya solucionado la rotura. Comprobada la gravedad de la rotura el Juez-árbitro podrá decidir la reanudación de la tanda sin la trainera averiada.

En ambos casos y cualesquiera que sean las circunstancias concurrentes, se aplicará a la tripulación afectada una penalización de 3 segundos. La simulación de cualquiera de los supuestos indicados supondrá la exclusión de la regata.

4) En el supuesto de que una climatología adversa, u otra circunstancia extraordinaria, obligase a suspender cualquiera de las regatas, corresponderá al Comité Organizador determinar la fecha y hora en que se celebrarán las mismas. Como regla general, y sin perjuicio de lo que el Comité pueda decidir en cada caso, se establece un plazo de cuarenta y ocho horas para la celebración de la primera regata, celebrándose la segunda regata en el plazo de los siete días siguientes. En caso de suspensión, la Bandera y los demás premios habrán de adjudicarse igualmente previa celebración de las dos regatas.

14.-<u>Dietas para las tripulaciones que participen en la regata clasificatoria</u>.

Las tripulaciones que participen en la regata clasificatoria percibirán una dieta cuyo cálculo se realizará teniendo en cuenta el siguiente baremo:

- Dieta para tripulaciones cuyo lugar de origen diste hasta 150 kms. de Donostia-San Sebastián: 500 €

IFK-CIF Q2000541I
10131n I 2009-11

- Tripulazioaren jatorria Donostiatik gehienez 400 kilometrotara badago: 750 €
- Tripulazioaren jatorria Donostiatik gutxienez 400 kilometrotara badago: 1000€

15.-Estropadetako sariak.

1) Estropadetan parte hartzen duten tripulazioek honako sariak irabaziko dituzte:

- Lehen sailkatuak: Donostiako Bandera, banderaren erreprodukzioa arraunlari guztientzat eta 24.000 €.
- Bigarren sailkatuak: 15.000 €
- Hirugarren sailkatuak: 12.000 €
- Laugarren sailkatuak: 9.000 €
- Bosgarren sailkatuak: 7.000 €
- Seigarren sailkatuak: 6.000 €
- Zazpigarren sailkatuak: 5.000 €
- Zortzigarren sailkatuak: 5.000 €

Estropadako Bandera eta gainerako sariak bigarren igandeko estropada amaitu ondoren entregatuko dituzte. Entregatzeko protokoloa eta tokia estropada jokatu aurreko egunetan jakinaraziko dizkiete bertan parte hartuko duten klubei.

16.-Erantzukizunak.

Estropadetan parte hartzen duten elkarteek, kirolariek, prestatzaileek eta gainerako pertsonek beren borondatez hartzen dituzte beren gain kirol-jarduera honen arriskuak, eta erakunde antolatzaileak ez du inolako obligaziorik proba egin aurretik, proban bertan edo probaren ondoren istripurik gertatzen bada, beti ere, antolakuntzari lepora dakiokeen errua edo arduragabekeria hauteman ezean.

17.-Araudia.

1) DONOSTIA KULTURAk honako ebazpen eta arau hauek aplikatuko ditu kirol-proba hauetarako:

- Dieta para tripulaciones cuyo lugar de origen diste hasta 400 kms. de Donostia-San Sebastián: 750 €
- Dieta para tripulaciones cuyo lugar de origen diste más de 400 kms. De Donostia-San Sebastián: 1000 €

15.-Los premios de las regatas.

1) Las tripulaciones participantes en las regatas obtendrán los siguientes premios:

- Primera clasificada: Bandera de Donostia - San Sebastián, reproducción de la bandera para toda la tripulación y 24.000 €
- Segunda clasificada: 15.000 €
- Tercera clasificada: 12.000 €
- Cuarta clasificada: 9.000 €
- Quinta clasificada: 7.000 €
- Sexta clasificada: 6.000 €
- Séptima clasificada: 5.000 €
- Octava clasificada: 5.000 €

La entrega de la Bandera y del resto de los galardones de la regata se efectuará tras la finalización de la regata del segundo domingo. El protocolo y el lugar de entrega se comunicarán a los clubes participantes en fechas próximas a la celebración del evento.

16.-Responsabilidades.

Los clubes, sus deportistas, técnicos y demás personas que tomen parte en las regatas asumen voluntariamente los riesgos de la actividad deportiva en la que participan, no asumiendo la entidad organizadora ninguna obligación en caso de accidente antes, durante o después de las pruebas, salvo que intervenga culpa o negligencia imputable a la organización.

17.-Reglamentación.

1) DONOSTIA KULTURA aplicará en el desarrollo de este evento deportivo las resoluciones y normas siguientes:

IFK-CIF Q2000541I
10131n I 2009-11

Donostia Kultura
Festak • Fiestas
Konstituzio Plaza, 1 • 20003 Donostia-San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177 • donostiakofestak@donostia.org

a) Oinarri hauek eta oinarriok betetzean antolatzaileak hartzen dituen erabakiak.

b) Kirol Kontseilu Goreneko Lehendakaritzaren 2011ko azaroaren 30eko Ebazpena, 2012 urterako kirolean debekatuta dauden produktuen eta metodoen zerrenda onartzen duena.

c) Arraunketako Euskal Federakuntzaren Araudia, Dopatzea Kontrolatzekoa, indarrean.

d) Arraunketako Euskal Federakuntzaren Aulki Finkoko Estropaden Kodea, indarrean dagoena.

e) Arraunketako Euskal Federakuntzaren Kirol Diziplinako Araudia, indarrean dagoena.

Adierazitako araudia aplikatuta, honako berezitasun hauek hartuko dira kontuan:

1) Txanden osaketa: Kontxako Banderako bi igandeetako txanda bakoitzean 4 ontzik hartu beharko dute parte gutxienez, ezinbesteko arrazoi batengatik eta/edo traineruren bat kanporatua izateagatik ez bada.

2) Ibildea: Tripulazio bakoitzak, esleitu zaion kaletik joaten saiatu behar du. Ziaboga, kale bereko balizan egin behar du. Hala ere, Epailearen iritziz beste traineru bat oztopatzen ez badu, helmugara edozein kaletatik sartu ahal izango da.

3) Irteera ustela: Edozein ontzik lehen irteera ustela egiten badu, irteerako Epaileak hiru segundorekin zigortuko du. Bigarren irteera ustela eginez gero, trainerua deskalifikatu egingo dute.

4) Homologazioa: Kontxako Banderan parte hartzen duten ontzien egileek, ontzi horiek homologatu behar dituzte. Homologazio-ziurtagiria, izena emateko inprimakiarekin batera, antolakuntzari aurkeztu beharko diote.

a) Las presentes bases y las decisiones que en cumplimiento de las mismas adopte la organizadora.

b) Resolución de 30 de noviembre de 2011, de la Presidencia del Consejo Superior de Deportes, por la que se aprueba la lista de sustancias y métodos prohibidos en el deporte para el año 2012.

c) Reglamento vigente de Control de Dopaje de la Federación Vasca de Remo.

d) Código vigente de Regatas de Banco Fijo de la Federación Vasca de Remo.

e) Reglamento vigente de Disciplina Deportiva de la Federación Vasca de Remo.

En la aplicación de la normativa señalada se tendrán en consideración las siguientes particularidades:

1) Composición de las tandas: las tandas de los dos domingos de la Bandera de la Concha no podrán estar compuestas por menos de 4 embarcaciones, salvo fuerza mayor y/o penalización de expulsión.

2) Recorrido: Cada tripulación deberá procurar hacer su recorrido por la calle asignada, debiendo realizar la ciaboga por la baliza de la misma calle, aunque esto no impedirá que pueda llegar a la meta por cualquier calle, siempre que a juicio del Juez-Arbitro no entorpezca a otra embarcación.

3) Salidas en falso: la primera salida en falso de cualquiera de las embarcaciones se penalizará por parte del Juez-Arbitro de salida con tres segundos. La segunda salida en falso supondrá la descalificación.

4) Homologación: las embarcaciones que participen en la Bandera de la Concha deberán estar homologadas por sus respectivos constructores. El certificado de homologación deberá ser presentado a la organización junto al impreso de inscripción.

IFK-CIF Q2000541I
10131n I 2009-11

Donostia Kultura
Festak • Fiestas
Konstituzio Plaza, 1 • 20003 Donostia-San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177 • donostiakofestak@donostia.org

5) Coaching: Ekipo elektriko, elektroniko edo bestelakoen (irratia,...) bitartez, arraunlariei edo taldeei aholkuak emateko baimena dute.

DONOSTIA KULTURAko lehendakaritzari dagokio, kirol-proba hauek behar bezala garatzeko beharrezko arau partikularrak eta arautegien egokitzapenak onartzea, beti ere, estropadaren antolamenduaren eta honako oinarri hauen arabera. Bere erabakien berri eman beharko dio Administrazio Kontseiluari, jakinaren gainean egon dadin. Halaber, www.donostia.org/donostiakofestak web gunean emango dira argitara.

5) Coaching: se autoriza el asesoramiento a los remeros o equipos en competición mediante equipos eléctricos, electrónicos o de otro tipo (radio…)

La Presidencia de DONOSTIA KULTURA quedará facultada para aprobar las normas particulares y adaptaciones de dichos reglamentos que exija el correcto desarrollo del evento en función de la organización propia de la regata y de las presentes bases. De sus resoluciones dará cuenta al Consejo de Administración para su conocimiento y se publicarán en la web www.donostia.org/donostiakofestak

18.-Diziplina-araubidea.

1) Diziplina-araubidea oinarri hauetako arau-hausteetara eta 17. oinarrian aditzera ematen diren arauetara hedatzen da, eta Oinarri horretan adierazten den Kirol Diziplinako Arautegiari jarraituko zaio.

2) Arraunketako Euskal Federakuntzaren eskumena izango da edozein probaren garapenean zehar egin litezkeen arau-hausteetatik ondorioztatu litezkeen diziplina-espedienteen instrukzioa eta ebazpena.

3) Kirol-proba honetan izena eman duten eta, hortaz, oinarri hauek onartu dituzten kirolariei, prestatzaileei, elkarteei eta gainerako pertsona fisikoei edo juridikoei, aurreko oinarrian jasotako zigor-ahalmena ezarriko zaie.

4) Kirol-diziplinako araubidea erantzukizun zibilaren, penalaren edo bestelako erantzukizun baten kaltetan izan gabe aplikatuko da. Horiek, dagozkien arauen arabera beteko dira.

5) Kontxako Bandera honi aplikatzen zaion Kirol Diziplinako Arautegian aurreikusten diren (eta Arraunketako Euskal Federakuntzak tramitatutako espedienteetatik ondorioztatzen diren) zigorrez gain, DONOSTIA KULTURAko

18.-Régimen disciplinario.

1) El régimen disciplinario se extiende a las infracciones de las presentes bases o de las reglamentaciones señaladas en la Base 17 y se regirá por el Reglamento de Disciplina Deportiva señalado en dicha Base.

2) Será competencia de la Federación Vasca de Remo la instrucción y resolución de los expedientes disciplinarios que pudieran derivarse de infracciones cometidas en el transcurso de la celebración de todas las pruebas.

3) A las deportistas, técnicos, clubes y todas aquellas personas físicas o jurídicas que se encuentren en una relación de sujeción especial como consecuencia de su inscripción y aceptación de las presentes bases, les será de aplicación la potestad disciplinaria recogida en la base anterior.

4) El régimen disciplinario deportivo se entiende sin perjuicio de la responsabilidad civil, penal o de otra naturaleza, que se regirá por sus propias normas.

5) Además de las sanciones previstas en el Reglamento de Disciplina Deportiva que se aplican a esta Bandera de la Concha , y que pudieran derivarse de los expedientes tramitados por la Federación Vasca de Remo, la Directora - Gerente de

IFK-CIF Q2000541I
10131n I 2009-11

zuzendari kudeatzaileak hainbat zigor ezarri ahal izango du, hala nola aurreikusitako sariak edo dietak jasotzeko eskubidea murriztea edo galtzea, edo, arau-haustearen larrialdia kontuan izanik, ondorengo probetan ezin parte-hartzea.

6) DONOSTIA KULTURAko zuzendari kudeatzaileak emandako diziplina-erabakiak ezin izango dira errekurritu kirol-federakuntzen aurrean, ez eta Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean ere

19.-Erreklamazioak edo aurka-egiteak.

1) Txanda batean arauak hautsi direla uste duen tripulazio batek Epaimahaiari erreklamazioa aurkez diezaioke bere ordezkariaren bitartez. Hori guztia, traineruko patroiak uretan emaitzaren aurka egin eta 1.200 €ko fidantza jarri ondoren egin ahal izango du

2) Erreklamazioa egin nahi duen klubeko ordezkariak, txanda amaitu eta hogeita hamar (30) minutuko epean, idatzi bat (horretarako prestatutako inprimaki ofizialean) aurkeztu beharko dio Epaimahaiari. Bertan, erreklamazioaren arrazoiak eta oinarriak adieraziko ditu, eta bere esku dauden eta egokiak iruditzen zaizkion frogak aurkeztuko ditu. Erreklamazioarekin batera 1.200 €ko fidantza jarri beharko du. Aurka-egiteak aurrera jarraitzen badu, fidantza erreklamatzaileari itzuliko zaio.

3) Epaimahaiak, gertakariak aztertu ondoren, erreklamazioa aztertu eta hartutako erabakia erreklamatzaileari jakinaraziko dio, erreklamazioa aurkeztu eta gehienez hogeita hamar (30'') minutuko epean

20.-Oinarri hauen interpretazioa.

Oinarri hauek eta 17. Oinarrian aipatzen diren arautegiak interpretatzean edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo egon daitezkeen hutsuneak DONOSTIA KULTURAko Lehendakaritzak ebatziko ditu. Erabaki horiek Administrazio Kontseiluari helaraziko zaizkio, jakinaren gainean egon dadin, eta www.donostia.org/donostiakofestak web gunean emango dira argitara.

DONOSTIA KULTURA podrá imponer sanciones consistentes en la reducción o pérdida del derecho a percibir los premios o dietas previstas, o la exclusión de pruebas futuras en base a la gravedad del hecho infractor.

6) Las resoluciones dictadas por la Directora - Gerente de DONOSTIA KULTURA no serán susceptibles de recurso ante las federaciones deportivas ni ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva.

19.-De las reclamaciones o impugnaciones.

1) Una tripulación que estime que una tanda se ha desarrollado de forma incorrecta podrá elevar reclamación ante del Jurado a través de su delegado, previas impugnación de su patrón en el agua y presentación de fianza por valor de 1200€.

2) El delegado del club que pretenda formular la reclamación, deberá entregar al Jurado, no más tarde de treinta minutos (30") tras finalizar la tanda, un escrito (en el impreso oficial destinado a tal fin) indicando los hechos y fundamentos de la reclamación, aportando las pruebas que obraren en su poder y estimaren oportunas. La presentación de la reclamación irá acompañada de una fianza de 1200 € euros que serán devueltos al reclamante caso de prosperar la impugnación.

3) El Jurado, tras estudiar los hechos, considerará la reclamación y comunicará su decisión al reclamante no más tarde de treinta minutos (30") a partir de la presentación de la reclamación.

20.-Interpretación de las presentes bases.

Las dudas o lagunas que puedan surgir en la interpretación o aplicación de las presentes bases y de los reglamentos citados en la Base 17 serán resueltas por la Presidencia de DONOSTIA KULTURA. De dichas resoluciones se dará cuenta al Consejo de Administración para su conocimiento y se publicarán en la web www.donostia.org/donostiakofestak

IFK-CIF Q2000541I
10131n I 2009-11

21.- Epeak, datak, ordutegiak eta lekuak zehaztea.

DONOSTIA KULTURAko Lehendakaritzari dagokio, ekitaldiak eta estropadak egiteko egunak, orduak eta lekuak zehaztea, baldin eta ezohiko gertakariengatik Oinarri hauetan ezarritako egutegia aldatu behar bada. Erabaki horiek Administrazio Kontseiluari helaraziko zaizkio, jakinaren gainean egon dadin, eta www.donostia.org/donostiakofestak web gunean emango dira argitara.

Donostian, 2012ko ekaina

21.- Determinación de plazos, fechas, horas y lugares.

Corresponderá a la Presidencia de DONOSTIA KULTURA la determinación de las fechas, horas y lugares de celebración de los distintos actos o pruebas, si como consecuencia de hechos extraordinarios hubiera que modificar el calendario establecido en las presentes Bases. De dichas resoluciones se dará cuenta al Consejo de Administración para su conocimiento y se publicarán en la web www.donostia.org/donostiakofestak

Donostia – San Sebastián, Junio de 2012

IFK-CIF Q2000541I
10131n I 2009-11

Donostia Kultura
Festak • Fiestas
Konstituzio Plaza, 1 • 20003 Donostia-San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177 • donostiakofestak@donostia.org